

1 Irakurri arretaz ondorengo curriculumua:

Maria Begoña Irizar Artamendi, 1962ko apirilaren 12an Getarian jaioa, 16.253.892 NANaren jabea, (945) 22 84 17 telefonoduna eta Gasteizko Buztinzuri kaleko 23, 5.ean (01008) bizi naizen honek, nire curriculumari buruzko datu hauek ematen dizkizut:

1980tik 1985era bitartean Euskal Filologia ikasi nuen EHUko Gasteizko Fakultatean. Horren ondoren, 1986tik 1991ra, Kazetaritzako ikasketak egin nituen EHUK Leioan duen Fakultatean. Aipatu beharra dago, bestalde, solfeoko 5 kurtso eta ballet-eko 3 egin ditudala Gasteizko Kontserbatorioan (1978-1983).

Ikasketa horietaz gain, ikastaro batzuk ere eginda dauzkat; informatikakook dira egin ditudan azkenak: Mac Write 4.5 eta Page Maker 4.0 (1994). Horien aurretik, beste hauek ere egin nituen: "Euskal hizkuntzalaritzaren inguruan" (1985) eta "La prensa que viene. Nuevas tendencias" (1994).

Hizkuntzei dagokienez, hona nire agiriak: Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeleseko 4. maila (1993), eta Euskararen Gaitasun Agiria (1985).

Lan-espereziari begira, hizkuntz dinamizatzaile aritu izan naiz AEKk antolatutako hainbat ikastarotan (1983), eta euskarazko klaseak eman ditut Hegoalde Euskaltegian (1988-1990). Horretaz gain, Leioako Unibertsitateko Argazkilaritza Taldeko partaidea izan naiz (1986), kazetaria Deia egunkarian (1987-1988) eta artikulugilea Gure Herria aldizkarian (1989-1992).

Egin dezagu kontu Maria Begoñak laburrago idatzi nahi duela curriculumua, eta hala prestaturik eduki sor daitezkeen lanpostuetara aurkezteko. Zergatik ez diozu laguntzen? Horretarako, eman itzazu datuok banan-banan, eta sailkatu informazioa hainbat ataletan (norberaren datuak, ikasketak...) eta modu kronologikoan.

2 Demagun Gasteizko Udaleko prentsa-bulegoan kazetari-lanpostu bat atera dela eta Maria Begoñak curriculumua aurkeztu nahi duela. Hori kontuan, antola ezazu informazioa ez kronologiari begira, Begoñak lortu nahi duen lanpostuaren ezaugarriei begira baizik. Gogoan izan, era berean, lanpostuarekin inolako loturarik ez duena alferrekoa dela. Kendu, beraz.

A R I K E T A K

G R A M A T I K A

3 Jar ezazu zenbakion idatzizko ordaina:

| | |
|----------|-------------|
| 9 | 74 |
| 13 | 80 |
| 30 | 98 |
| 36 | 400 |
| 40 | 435 |
| 41 | 682 |
| 50 | 1.700 |
| 60 | 1.849 |

4 Lotu ezazu *bait* partikula aditz laguntzailearekin, baina egin beharreko aldaketak eginda.

Adibidez: *ez da etorri, gaixorik baita* (bait + da).

- Berehala iritsiko gara, azkar (bait + goaz).
- Ez genuen erosi, garestia iruditu (bait + zitzaigun).
- Ez du merezi horri lanik ematea, gaizki egingo (bait + du).
- Iritziak iritzi eta zuzendariak zuzendari, jai hartuko dut, nekatuta
.....(bait + nago).
- Erre egingo haiz, suarekin ari (bait + haiz) jolasean.

5 Ondorengo testuan letra lodiaz bereiztutako hitz batzuk aurkituko dituzu. Alda itzazu hitzok, Euskaltzaindiak emandako gomendioak kontuan izanik. Hona aholku bat: ariketa egin eta gero, hitz horietako bakoitzaz zuk zeuk beste esaldi bat sortuz gero, errazago gordeko dituzu gogoan.

Nere ustez, eta inguruko beste hainbaten **eritziz** ere bai, Euskaltzaindiak emandako gomendioak ez dira euskaraz idazten diharduten guztiengana behar bezain azkar iristen, nahiz eta **zai** egon (**neri**, behintzat, hala gertatu zait).

Ohizko bideez gainera, beste hedabide batzuk ere **mugi erazi** beharko genituzke, pertsona **batzu** kontra badaude ere, erabaki edo gomendatutakoaren berri denok izateko, bestela ez **bañ gara** ezertaz jabetuko. **Amorracionea** sortu eta **ernega erazi** besterik ez **bañ du** egiten idazmolde jakin bat erabili, zuzena delakoan, eta hurrengo egunean, hilaren **4ean**, hain juxtu, okerreko-edo bidea hartu duzula entzuteak.

Zuzen idazteko arrastoaren **usaia** hartu, kostata baina **dohai** bereziren baten jabe zarelakoan pozik, inoiz baino gehiago eta hobeto idatzi eta... bai zera! betiko omen zena, **bapatean** gainbehera, beste gomendioren baten **arauera**. **Zenbagarrena**... laugarrena, zortzigarrena, **bostgarrena**? Jakin ez.

Batzu beltzaren alde badaude eta beste **batzuk**, berriz, zuria gogokoago duten artean, **batek** argala nahi eta besteak lodia, guk, euskararen erabiltzaile xume garenok, nori kasu egin? **Goikaldean** dagoenari, **Zerbitzuburuari**, **Sailburuari** edo aurrealdean jartzen den edonori?

Esandako **guzti hori**, **nonnahi** eta **noiz nahi** euskaraz idatzi behar duenak badaki ondo. Ez dakigu nor edo **nortzu** diren egoeraren erantzule, ezta benetan erantzulerik dagoen ere, baina askotan izaten ditugun axaleko xalantxa xixtrin alfer horiek, aukeran, nahiago ez.

Txakurzulon, mila **bederatzirehun** eta **larogetitahamalaueko Abenduaren** zortzian.

6 Bete itzazu hutsuneak, batzuk behar bezala deklinatuz:

- (nor) ondo bizi izateko, gainontzekoek lan egin behar.
- (norentzat) ez da bat ere erraza paperean ikusitakoa gogoan hartzea.
- (nork) inork egindakoa hankaz gora uzteko trebetasun handia dute.
- (noiz) errazagoa da zuzentzea baino berriz idaztea.
- Pertsona (noren) ustez, lepora arteko elurra bezalakorik ez da, neguaz gozatzeko. Beste (nori), lainoak ikuste hutsak hotzikara eragiten die.
- Herri (nondik) beste (nora) alde handia dago: (nor) itsusiak dira, besteak oso zatarrak.
- Administrazioako testu (nongo) esaldiak ulertzea ia ezinezkoa da (noiz), luzeegiak izateaz gainera, hitzak ere ez direlako eguneroko hizkerakoak.

S O L U Z I O A K

1

Curriculum

Norberaren datuak

Izen-abizenak: Maria Begoña Irizar Artamendi
 Jaioterrria: Getaria
 Jaioteguna: 1962-04-12
 NAN: 16.253.892
 Helbidea: Buztintzuri 23, 5. Gasteiz (01008)
 Telefona: 945 228417

Ikasketak

1978-1983 Solfeo (5 kurtsu). Balleta (3 kurtsu). Gasteizko Kontserbatorioa
 1980-1985 Euskal Filologia. Euskal Herriko Unibertsitatea (Gasteiz)
 1986-1991 Kazetaritza. Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)

Ikastaroak

- Hizkuntzalaritza
 - 1985 "Euskal hizkuntzalaritzaren inguruan"
 - Kazetaritza
 - 1994 "La prensa que viene. Nuevas tendencias"
 - Informatika
 - 1994 Mac Write 4.5
 - 1994 Page Maker

Hizkuntzak

1985 Euskara. Euskararen Gaitasun Agiria
 1993 Ingelesa. Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila

Lan-espientzia

- Hizkuntzalaritza
 - 1983 Hizkuntz dinamizatzaile (AEK)
 - 1988-1990 Euskarazko irakaslea (Hegoalde Euskaltegia)
 - Kazetaritza
 - 1986 Leioako Unibertsitateko Argazkilaritza Taldeko partaidea
 - 1987-1988 Kazetaria. Deia
 - 1989-1992 Artikulugilea. Gure Herria aldizkaria

2

Curriculum

Norberaren datuak

Izen-abizenak: Maria Begoña Irizar Artamendi
 Jaioterrria: Getaria
 Jaioteguna: 1962-04-12
 NAN: 16.253.892
 Helbidea: Buztintzuri 23, 5. Gasteiz (01008)
 Telefona: 945 228417

Ikasketak

1986-1991 Kazetaritza. Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)
 1980-1985 Euskal Filologia. Euskal Herriko Unibertsitatea (Gasteiz)

Ikastaroak

- Kazetaritza
 - 1994 "La prensa que viene. Nuevas tendencias"
- Informatika
 - 1994 Mac Write 4.5
 - 1994 Page Maker
- Hizkuntzalaritza
 - 1985 "Euskal hizkuntzalaritzaren inguruan"

Hizkuntzak

1985 Euskara. Euskararen Gaitasun Agiria
 1993 Ingelesa. Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila

Lan-espientzia

- Kazetaritza
 - 1987-1988 Kazetaria. Deia
 - 1989-1992 Artikulugilea. Gure Herria aldizkaria
 - 1986 Leioako Unibertsitateko Argazkilaritza Taldeko partaidea
 - Hizkuntzalaritza
 - 1988-1990 Euskarazko irakaslea (Hegoalde Euskaltegia)
 - 1983 Hizkuntz dinamizatzaile (AEK)

3

| | |
|-------------------------------|---|
| 9 bederatzia | 74 hirurogeita hamalau |
| 13 hamahiru | 80 laurogei |
| 30 hogeita hamar | 98 laurogeita hemezortzi |
| 36 hogeita hamasei | 400 laurehun |
| 40 berrogei | 435 laurehun eta hogeita hamabost |
| 41 berrogeita bat | 682 seiehun eta laurogeita bi |
| 50 berrogeita hamar | 1.700 mila eta zazpiehun |
| 60 hirurogei (hiruretan hoge) | 1.849 mila zortziehun eta berrogeita bederatzia |

5

Nire ustez, eta inguruko beste hainbat iritzi ere bai, Euskaltzaindiak emandako gomendioak ez dira euskaraz idazten diharduten guztiengana behar bezain azkar iristen, nahiz eta zain egon (niri, behintzat, hala gertatu zait).

Ohiko bideez gainera, beste hedabide batzuk ere mugiarazi beharko genituzke, pertsona batzuk kontra badaude ere, erabaki edo gomendatutakoaren berri denok izateko, bestela ez baikara ezertaz jabetuko. Amorrazioa sortu eta enegarazi besterik ez baitu egiten idazmolde jakin bat erabili, zuzena delakoa, eta hurrengo egunean, hilaren 4an, hain juxtu, okerreko-edo bidea hartu duzula entzuteak.

Zuzen idazteko arrastoaren usaina hartu, kostata baina dohain bereziren baten jabe zarelakoan pozik, inoiz baino gehiago eta hobeto idatzi eta... bai zera! betiko omen zena, bat-batean (bet-betan) gainbehera, beste gomendioren baten arabera. Zenbatgarrena... laugarrena, zortzigarrena, bosgarrena? Jakin ez.

Batzuk beltzaren alde badaude eta beste batzuek, berriz, zuria gogokoago duten artean, batak argala nahi eta besteak lodia, guk, euskararen erabiltzaile xume garenok, nori kasu egin? Goiko aldean (goialdean) dagoenari, zerbitziburuari, sailburuari edo aurrealdean jartzen den edonori?

Esandako hori guztia (hori guztiori), nonahi (non-nahi) eta noiznahi (noiz-nahi) euskaraz idatzi behar duenak badaki ondo. Ez dakigu nor edo nortzuk diren egoeraren erantzule, ezta benetan erantzulerik dagoen ere, baina askotan izaten ditugun axaleko xalantxa xixtrin alfer horiek, aukeran, nahiago ez.

Txakurzulon, mila bederatziehun eta laurogeita hamalauko abenduaren zortzian.

4

- Berehala iritsiko gara, azkar baikoaz (bait + goaz).
- Ez genuen erosi, garestia iruditu baitzitzaigun (bait + zitzaigun).
- Ez du merezi horri lanik ematea, gaizki egingo baitu (bait + du).
- Iritziak iritzi eta zuzendariak zuzendari, jai hartuko dut, nekatuta bainago (bait + nago).
- Erre egingo haiz, suarekin ari baihaiz (bait + haiz) jolasean.

6

- Batzuk (nor) ondo bizi izateko, gainontzekoek lan egin behar.
- Batzuentzat (norentzat) ez da bat ere erraza paperean ikusitakoa gogoan hurtzea.
- Batzuek (nork) inork egindakoa hankaz gora uzteko trebetasun handia dute.
- Batzuetan (noiz) errazagoa da zuzentzea baino berriz idaztea.
- Pertsona batzuen (noren) ustez, lepora arteko elurra bezalakorik ez da, neguaz gozatzeko. Beste batzuei (nori), lainoak ikuste hutsak hotzikara eragiten die.
- Herri batzuetatik (nondik) beste batzuetara (nora) alde handia dago: batzuk (nor) itsusiak dira, besteak oso zatarrak.
- Administrazio testu batzuetako (nongo) esaldiak ulertzea ia ezinezkoa da batzuetan (noiz), luzeegiak izateaz gainera, hitzak ere ez direlako eguneroko hizkerakoak.